




ausolan
 auzo lagun

Uribarri Etorbidea, 35
 Tel. 943 79 46 11
 ARRASATE

Polig. Industrialdea
 Gaviria kalea, 22-24
 Tel. 943 63 30 66 IHUN

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL


MANPEL

**Bulego altzariak
 eta materiala**
PAPERDENDA

Tel. 943 365602
 Faka. 943 371080
 Mobila. 687 825590
 fatima@manpel.com
 www.manpel.com


EIBAR-ERMUA
 IES-BHI

BATXILERGOA
GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
ARAUTU GABEKO HEZIKETA

Bigarren Hezkuntzako
 Institutua
 A eta D ereduak

ETAGIA HIRIRIDEA, 59. 20600 EIBAR (GIPUZKOA) 943 20 84 44
 WWW.IERUNIBH.COM UNIB@IERUNIBH.COM


Kasker
 Calbeton, 6


ArmeriaEskola*
 "gure gure-gure gure"

100.ArmeriaEskola*

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: MEKANIZAZIOA (A eta D ereduak)
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA AUTOMATIKOAK (A eta D ereduak)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBAREN PRESTAKETA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: Fabrikazio mekanikoa, Mentenimendua, Elektrizitatea eta Elektronika

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA: Langileentzako eta langabetuendako ikastaroak

Tfno. 943 20 32 44
 e-mail: elbar@armeriaeskola.com
 www.armeriaeskola.com


Eibarbus

Autobusak

Zuekin, egunero, Ikastolara bidean



Isasi, 10-behea
 361 Postakutxa

Tfnoa: 943 20 17 33
 Garajea: 943 17 34 99

Mobila: 608 67 66 59
 Faka: 943 70 16 20

Partaidetza, arrakastaren giltza

Partaidetza. Eskua eman, eskua bat bota, eskua luzatu, eskura izan, eskuratu, esku hartu.

Eskua eman elkarrekin aritzeko. Esku bat bota berdintsu aritzeko. Eskua luzatu antzeko mailara iristeko. Eskura izan premian gaudenean luzatu zaiguna hartzeko. Eskuratu. Eskua hartu.

Bai, esku hartu elkarren artean aurrera daramagun erronkan. Esku hartu bakoitzak ahal duen neurrian erronkari aurre egiteko. Elkarrekin aritu elkarreragina landuz, bultzatuz, gure erronka nagusia eskuratzeko. Hazi eta Hezi, Hezi eta Hazi elkarren artean; Guraso, ikasle eta irakasle.

Hiru zutabe handi helbururik garrantzitsuenari eusteko. Hiru zutabe trinko eta sendo, oinarritzkoak, beharrezkoak direnak erronkarik zailenetarikoa lortzeko: Gure Gazteen Hezkuntza.

Hiru zutabe lan berberean jardunean. Hiruek hiruen premian. Batak ezin aurrera egin besteak gabe. Hiruak esku hartu behar aurrera egin nahi badute. Elkarrekin elkarrentzat aldibereko elkarreraginean. Batek eman, besteak hartu, hirugarrenak luzatu. Horra hor elkarrekin lanean ardatz beraren euska-

rri. Batek besteak baino gehiago edo gutxiago eginez oreka galtzeko paradan. Elkarreragin orekatua bakoitzak berak ahal duen eta behar duen neurrian jardunean. Ezinbestekoa hiruen partaidetza, hiruen esku hartzea, hiruen esku luzatzea.

Hiruak batera lanean eta proiektu berean, ahaztu gabe protagonista, ikaslea dela eta haren inguruan ari garela. Bera da gure ardatza eta gu haren baitan lanean. Ezinbestekoa hiru osagaien partaidetza, teknologiak eta globalizazioak izugarritzko abiadan ari direnean.

Ohartu orduko, etorkizuna iragan bihurtzen da eta oraina ezaugarri berriztagarritz hornitua agertzen zaigu.

Irakasle eta gurasoak beldurrak uxatzeko denborarik ez, ausardia ikasleen soingaineko denean, eta nahitaezkoa, denok parera aritzea munduaren abiadurak irentsi ez gaitzan, heziketa- ren bidaia honetan, etorkizuneko gizarte partaide partehartzaileak bultzatzen eta hezten dihardugunean.

Partaidetza, esku hartzea, eskuratzetza, ezinbestekoa. Partaidetza, geroaren, etorkizunaren edo arrakastaren giltza.

J.A. Mogel Ikastola

Mandiola balle 29

943 70 19 58 - 943 20 84 87

jamogelikastola@gmail.com

Mogel Isasi BHI

Isasi 37

943 20 30 94

012948aa@hezkuntza.net

www.mogel.org



*Especialitateak
Plater Prestatuak
Harragi Bihainak*



C/Bidebarricla 20 - EIBAR - Tfno 943 20 18 69 e-mail: oberena@oberenak.com

ESKOLAKO AGENDA 21 MUGIKORTASUNEAN HANKA ETA BURU

Eskolak gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzun nahi badie, ingurunearekiko irekiagoa izan behar du eta honen hobekuntzarekiko konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatu behar ditu.

J.A. Mogel ikastolak, Eskolako Agenda 21aren baitan, 2011-2012 ikasturtean, mugikortasuna izango du aztergai. Horretarako, ikasleek Udalerriko mugikortasunaren diagnostikoa egin eta emaitzak aztertu ondoren, herritarrei eta udalari hobetzeko proposamenak aurkeztuko dizkie, herriko mugikortasuna jasangarriagoa izateko konpromisoak hartuaz.



GURE HAUTUA

Azken urte hurbil hauei begiradatxo bat bota eta gaur egun zertan dihardugun azaltzen joango da saiakera hau.

2005-06 ikasturtea izan zen J. A. Mogel Ikastola "Kalitatea Hezkuntzan" murgildu zena eta harrezkero gauzatu diren Plan Estrategikoetan, argi eta garbi azaldu zaigu euskararen lehentasuna Ikastolako zereginaren, lan ildoetan:

"Euskara eta euskal kulturaren inguruan egiten diren ekintzak baloratu, hobetu eta potentziatu.

"Ikasle euskaldunak hezi gu formatuz eta eredu izanez."

Euskararen garrantzia gure lan ildo nagusietarikoa dela kontuan izanik, "EUSKARAREN ERABILERAREN HAUSNARKETA" egin



genuen, "...eta kitto!" euskera elkarteak zuzenduta.

Ikastolako kideekin urte osoan zehar gauzatzen den plangintza www.mogel.org web gunean aurki dezakegu "Euskaraz Bizi" atalean.

Ez gaude lo, baina eki-


nean jarraitu behar dugu. Ez bota errua kanpotik ipintzen dizkiguten trabei; nik neuk, guk geuk sinestean, geure hautuan dago kakoa.

Ogi gogorrari, hagin zorrotzak!

Teknologia berrien beste pauso bat: LIBURU DIGITALA

Dagoeneko hasiak gara gela birtualekin. Eskola 2.0 markatutako erronkei erantzun egokia eman nahian. Aurreko bi ikasturteetan Goi Zikloko ikasleek aukera izan dute geletan arbel digitala erabiltzeko ordenagailu txikiekin batera.

Aurten, Erdi Zikloko ikasleek ere posible dute astean behin, gela digitalean saltseatzeko. Honez gain, Iturburuko ikasleek bideo proiektuagailuen (kainoi) bidez zentroko espazio desberdinetan hainbat jarduera egiten dute.



2011-2012 Ikasturterako Txanela proiektuarekin bat eginez, argitaletxeak eskaintza berezia ematen digu, LIBURU DIGITALA.

Liburu berri honek bi osagai nagusi ditu: alde batetik paperezko liburua bera, zoom-liburua formatoan digitalizaturia; eta bestetik Txanela liburu etako edukiak multimedia baliabideekin aberastuta (abestiak, bideoak, webguneak).

Honela, Txanela Proiektuak eskaintzen dituen aukerak, internet bidezko laguntzaz zabalitzen dira. Irakasleek ere, ekarpenak egin ditzakete liburuan ikasleekin informazioa konpartitzen.



Eskaintza honekin baliabideen aukerak zentralizatzen dira, editorialak proposatutakoak eta irakasleek aberastutakoak. Horrela egin daitezkeen ekarpen eta hobe-kuntza guztiak momentuan eguneratzen dira eta laguntzen dute gelako lan dinamika aktiboan.

Erronka honen aurrean ikasleek baliabide guztiak erabiltzeko dituzte gure hezkuntza kalitatea indartzeko; ikasten, konpartitzen eta disfrutatzen hartutako pauso berri honekin.



Mogel Guraso Elkarte ikastolako haurren guraso guztiok osatzen dugu, Sansaburu, Argatxa, Iturburu eta Mogel Isasiko gurasook. Urtero ordaintzen dugun kuotari esker, gure seme-alaben hezkuntzarako interesgarri eta osagarri diren ekintzak eta baliabideak kudeatzen ditugu: irteerak eta txangoak antolatu, ikastaroak eta hitzaldiak, ikas materiala erosi Ikastolarako... azken batean, umeen prestakuntza osatzeko beharrezko diren material eta jarduerak kudeatzen ditugu.

Guraso Elkarte, beraz, guztiok osatzen dugu, eta Guraso Elkarteko ekintzetan ere edozein gurasok hartu dezake parte. Aurten go ikasturtean, Guraso Elkarteko jarduera dinamizatzeko eta guztion arteko komunikazioa hobetzeko zenbait ekimen abiatu ditugu. Izan ere, Ikastolako gurasoen artean kezka somatu dugu, gure arteko komunikazioa ez dela nahiko genukeena bezain ona. Ez gurasoon artekoa, ez guraso eta ikastetxearen artekoa ere. Hori dela eta, plangintza xume bat jarri dugu martxan, datozen hilabeteotan guztion arteko komunikazioa hobetzeko eta, azken batean, guraso elkartearen eta ikastetxearen funtzionamendua sendotzeko.

Oraingoz lehenengo urratsak besterik ez ditugu eman, baina dagoeneko hasi gara lehenengo emaitzak ikusten. Esate baterako, Guraso Elkartearen webgunea inauguratu dugu, www.mogelge.com. Gainera, Geletako Arduradun guztien arteko bilera bat ere egin da, guztion artean zenbait gai lantzeko eta posta-zerrenda baten bidez guztion arteko komunikazioa hobetzeko.

Gelako Arduradunen figura indartu beharra ere nabarmendu dugu gure artean. Azken batean, arduradunak giltzarri dira gurasoen, irakasleen eta elkartearen arteko komunikazioa egokia izan dadin. Komunikazioa indartzeko ez ezik, baita parte-hartzea handitzeko ere. Horrekin batera, gela eta maila bereko gurasoen arteko komunikazioa hobetzeko plataformak aztertzen ari gara, batez ere Internet bidezkoak, informazio-trukea arinagoa izan dadin. Eta kexak eta iradokizunak plazaratzeko ere bideak errazteko.

Guraso Elkartek Mogel Isasin egiten ditu bilerak, eta elkartearen zuzendaritzatik deia egiten dizugu zure kezkak eta iradokizunak gurekin partekatzerara. Guztion laguntza eta iritzia beharrezko dugu Elkarte indartzeko. Hainbat modutan hartu dezakezu parte:

- Guraso Elkartean antolatzen ari garen lantaldeetan parte hartuz: Natura, Elikadura eta jangela, txangoak eta irteerak antolatzen, Ikastolan antolatzen diren jaialdi eta ekitaldietan laguntzen, extraeskolarrak antolatzen...
- Hilero antolatzen ditugun Elkarteko Batzarretan parte hartuz. Oro har, hileko lehenengo astelehenean izaten dira. Animo! Etorri zaitetz eta eman zure iritzia, Ikastolaren jardunaz eta egin beharrekoen inguruan.
- Zure iritzia eman, iradokizunak helarazi, Guraso Elkartearen webgunearen bidez: <http://mogelge.com>.

Edozertarako, jarri gurekin harremanetan. Zure iritzia ezinbestekoa da Mogel Ikastola indartzeko!

Mogel Guraso Elkarte

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

Azken garaiko pedagogia berrikuntzak garrantzi handia ematen dio ikasleak egiten duenari, ikasleak egiten ikasten du, aktibao izan behar du eta ez pasiboa, bera da bere prozesuaren jabe eta protagonista.


Ikaste prozesu honetan maila berdinen arteko (ikasleen artekoa) ikas-irakaskuntzak garrantzi handia du, beraien artekoa irakaslearekikoa baino askoz hurbilagoa baita (errazagoa, lotsa gabekoa, interes berdinei lotua...).

Prozesu honetan ikasle guztiek irteten dira irabazten, dakienak ez dakienari adierazteko hausnarketa sakona egin behar baitu eta ez dakienak hurbil dagoenarengandik

errezagoa gertatzen zaiolako ulertzea. Aldi bereko elkarreragina ematen da.

Hau dela eta irakaslearen rola aldatu egiten da, irakasleak lana erraztu egin behar du, baina bera ez da jakituria azaltzen duena eta gelako kudeaketa ere desberdina izan behar du, ikasleek gaitasun , errendimendu eta interes aldetik heterogeneoak izan behar duten taldeetan egingo dute lana.

Ikasleak bere prozesuaren jabe izan behar du, une oro konziente izan behar du bere egoeraz, zertan egin duen aurrera eta zein diren bere zailtasunak. Bere buruaren autoebaluazioa egin behar du.



La renovación pedagógica en los últimos tiempos da mucha importancia al hacer, los alumnos aprenden haciendo, ellos deben ser los protagonistas en el proceso educativo.

En este proceso adquiere mucha importancia el aprendizaje entre iguales, por que este es muy cercano y mejora al que enseña y al que aprende, hay una interacción entre ambos.

El rol del profesor cambia, ahora debe ser un facilitador y la estructura de clase cambia también, los alumnos deben agruparse en grupos heterogéneos en cuanto a capacidad, rendimiento e interés.

El alumno tiene que dominar su proceso, dándose cuenta se sus progresos y sus dificultades.

IKASLEEN PARTAIDETZA MOGEL ISASI IKASTETXEAN

Dakigunez, ikastetxea bere osotasunean era egokian kudeatzeko, kontutan hartu behar dira bertan parte hartzen duten talde desberdinak: guraso, zuzendari taldea, irakasle eta ikasleak hain zuzen. Azken hauen partaidetza baloratzeko ikasleen delegatuak deitu ditugu honen inguruan duten iritzia jasotzeko.



4. MAILA: IZARO FERNANDEZ, JONE OLABARRI ETA JONE BENGOA.

- Ikastetxe mailan, partaidetza gauzatzeko, zein bidetaz baliatu zaitezke edo baliatu zarete orain arte?

Hilabetetan behin bilerak egiten ditugu zerbait hobetu behar denean edo gauzak eskatzeko. Iaz, adibidez, "Iradokizunen Kutxa" jarri zen ikasleei parte hartzea emateko.

- Nola senti arazi zaituzte ahalmen hau izateak?

Ondo sentitzen gara, Ikastetxearen parte garela sentitzen dugu.

- Bilakaerarik nabaritu al duzue lau urte hauetan zehar? Zertan gauzatu da gehienbat?

Bilakaera nabarmena nabaritu dugu eta gaitera onerantz Gero eta aukera gehiago

dugula konturatzen gara.

- Partaidetza berdina izan da lehengo eta bigarren zikloan? Zertan datza desberdintasuna?

Ikusten dugu orain gauza gehiagotan parte hartzen dugula eta erabaki gehiago hartu. Adibidez, egutegia zela eta, proposamen berria azaltzeko aukera eman zitzaigun.

Lehen, erabaki guztiak delegatuen artean gelditzen ziren baina orain, gelaz gela besteen aurrean azaltzen ditugu eta botatu behar badugu ere gelaka egiten dugu.

- Nolako eragina izan du, adibidez, Ikas-keta Bidaia prozesu honetan?

Handia izan dela, ikasle bezala parte handia dugula nabaritzen dugu eta, bide batez, irakaslearekin harremanak ere sendotuz joaten direla.

- Beste arloren bat kudeatzeko proposamenik al duzue? Adibidez: jolastoki eta jolas denboraren erabilera, ikasleen edo irakasleekiko ezadostasunen aurrean nola jokatu, Hizkuntza Normalkuntza nola kudeatu, Agenda 21a...

Jolastokiari dagokionez, hasieran jokuak antolatzen ibili ginen baina azkenik libre uztea erabaki genuen.

Tutoreen bidez zuzentzen ditugu gure arazoak. Hizkuntza Normalkuntzan eta Agenda 21 ean parte hartzen dugu baita

Gabonetako Jaialdia antolatzerakoan, hemen ikasleek nahi duguna egiteko eta aurrera eramateko aukera izaten dugu.

- Delegatuen bileretara, gogoz ala, nolabait, behartuta agertzen zarete? Erabakikorrak ala inolako eraginekoak al dira?

Bilera hauetara, orain gustorago etortzen gara, lehenengo Zikloan gehiago kostatzen zitzaigun gauza ezezaguna zelako eta gu txikiagoak ere noski, orain, aldiz gogoz etortzen gara.

- Zerbait hobetzeko edo zuzentzeko proposamenik bururatzen zaizue?

Proposatuko genuke, "Txuri Urdinera" joateko aukera izatea Gamarrako irteeraren orde eguraldi txarra egingo balu.

1. MAILA: DBHKO ETAPA BERRIAREN AURREAN



Lehen mailakoen ikuspegia ezagutzeko, Markel, Igor, Pablo, Irati, Maddi eta Maialenekin elkartu gara honako galdera hauei erantzun digutelarik.

- DBHko egoera berriaren aurrean, zeintzuk ziren zuen beldur handienak?

Jendeak nola tratatuko gintuen, nagusien aurrean nola sentituko ginen...

Gu txikienak izatea zen gure ardura, nagusienak izatetik txikienak izatera.

- Iturburutik hona etortzean eta, jadanik, hiru hilabete igaro ondoren, Nola sentitzen zarete?

Orain hobeto sentitzen gara. Nolabait

ohituta. Aldaketa ez da hainbesterako izan.

- DBHko egoera berriaren aurrean, zeintzuk ziren zuen beldur handienak?

Irakasle asko izateak eta bakoitzaren desberdintasunetara ohitu beharra ziren gure kezka handiena.

- Zeintzuk lirateke alde txarrenak edo hoberenak, kontutan izanik arlo desberdin hauek: -Gai desberdinen zailtasunak, etxeko lanak, ikasketa beharrak, orduketak, jolas denbora, liburutegiaren erabilpena, irakasleen eskakizunak, ikastetxearen tokia, talde berrien osaketa...

Etxeko lanen zama nabaritu dugu, arlo batzuetan, batez ere, desberdintasunak handiagoak ziren, adibidez, ingelesan, gaztelanian...

Azterketak direla eta ez dugu igarri hainbesteko alderik.

Liburutegiaren erabileraz ere nahiko berdina da Iturburun eta hemen.

Ikastetxearen tokia dela eta, zarata handia entzuten da, trafikoa batetik eta La Salleko jolas denborak eta ospakizunak, bestetik. Eibarren egoteak badu bere alderdi onak ere erosoagoa da herrian bertan egotea. Hala ere, faltan botatzen dugu, Iturburuko jolas tokia eta giroa.

- Delegatuen bileretara, gogoz ala, nolabait, behartuta agertzen zarete? Erabakikorrak ala inolako eraginekoak al dira?

Gustora gatoz eta bere eragina ere ikusi dugu, adibidez, erabakiak hartzeko orduan jolas orduaren funtzionamenduan parte izan genuen.

- Partaidetza aldetik ikusten duzue desberdintasunik Lehen Hezkuntzarekin?

Lehen ez genuen delegatuen bilerik egin.

Parte hartzea gogoko dugu, gustora etortzen gara eta gainera bileretarako, ez digute jolas orduak murrizten, ordu lektibo desberdinetan egiten baitira, arlo berdina ez kaltetzeko eta garrantzitsuena gure iritzia ere kontuan hartzen dutela gaiak erabakitzerakoan..

Ekintzak Ekintzak Berrak



IKAS BIDAIA LANZAROTEN

Azken urteetan Lanzarotera goaz, esparru ludikoa, kulturala eta kirola uztartzen ditugularik. Kultur mailan irlako berezitasunak ikusten ditugu: "Timanfaya" su mendia, "Los Jameos del agua", "La cueva de los verdes", "La Graciosa irla"... Kirolean senderismoa egiten dugu "Risco de Famara" igotzen "Valle de las mil palmeras"-tik hasi eta "Famarako handartzara" jetsiaz, "La Graciosa" irlan uretako ekintzak eginez... Esparru ludikoan hoteleko hiru igerilekutan bainatuz, "Puerro Carmen"-eko diskotekak ezagutuz... Bizitza guztirako esperientzi ahaztezina.


FRANTZIARA BIDAIA

Oraingo honetan, Frantziako hiriburua ezagutu dugu, Paris.



GOURETTERA ESKIATZERA

Corte Ingleseko Herri Kiroleko txapelketa irabazteagatik Gourettera eskiatzera bidaia irabazi zuten 4.mailako ikasleek.



GABONETAKO JAIALDIA

Azken urteetan bezala gela guztiak parte hartu zuten Gabon jaialdian.



SAN ANDRESAK

San Andresak ohi bezala ospatu genituen taloa eginez eta herri kirolak egiten.

riak Berriak Ekintzak



BAKAILU LEHIAKETA

San Andres aurretik egoten den bakailau lehiaketan parte hartu genuen ohi den bezala.

IHAUTERIAK

Urtero legez, Ihauteriko kalejiran parte hartu zuten gure ikastetxeko ikasleek Esukal Ihauteriko pertsonaia erakustarazten Eibarko hiritarrei.



ARRATERA IRTEERA

Iraileko azken ostiralean aisialdi eta harremanatzeko ekintza gisara Arratera igotzen dugu. Batzuk bizikletaz eta gehienok oinez, Sta Gurutzen hamarretakoa egin eta Kalamuari vuelta emanaz Arrateraino iristeko.



DURANGOKO AZOKA

Durangoko liburu eta diska azoka bisitatu genuen azken nobedadeen berri izateko.



AGUR EKITALDIA

4.mailako ikasle eta guraso agurtu genituen suerte onena opatuz.



Ekintzak Ekintzak Berri



ARGATXAKOAK SANSABURUN

Argatzako nagusiak, Sansaburura joan ginen, datorren ikasturtean gurekin Iturburun egongo diren lagunak hobeto ezagutzeko. A ze koadrila ederra elkartu ginen!

LAPURREKETAN

2 eguneko irteera burutu genuen bertan. Hainbat tailerretan parte hartu genuen: ogi eta gozogintza, ikuiluan eta hemen agertzen den bezala, baratzean ere. Horrez gain primeran pasa genuen.



IGERILEKURA AUTOBUSEZ

Haurren Gorputz hezkuntza osotasunean landu beharreko apostua egin da betidanik gure zentroan. Horren adibide asko aurki ditzakegu emandako programan: psikomotrizitatea, eskalada, erritmoa, malabarismoa, xake, dantza, taldeko kirolak... Eta jakina, igeriketa ere formakuntza oso horren barruan izan behar dugu. Horretarako Hasiera eta Erdi Zikloko ikasle guztiek saio trinkoak egiten dituzte Eibarko Polikiroldegian.

IPUIN KONTALARIA HAUR HEZKUNTZAN

Hiruhilabete hasieran Argatxa eta Sansaburun Argitxoren Astea ospatzen da. Aitzakia paregabea izaten da euskararen inguruan ekintza gozagarriak egiteko: Bideoak ikusi, abestu, dantzak egin, kamishibai saioak izan, ipuinak entzune etbar. Horien artean ipuin kontalaria etortzen zaigu. Argazkian, Iturburuko Virginia, Wiki Txoriaren ipuina umeei kontatzen.



riak Berriak Ekintzak



ITURBURUN 1. EGUNA

Lehenengo eguna ikastolan, ikasle eta irakasle berriak, toki ezezaguna, urduritasuna, ezjakintasuna. Guzti horri aurre egiteko jaialditxo bat eskeintzen diete ikasle nagusiek 1go mailakoei. Aukera ederra beldur guztiak uxatzeko eta ondo pasatzeko.

EUSKERAREN EGUNA

Aurten ere abenduaren 3an, gelak utzi eta danok elkarrekin denbora hartu dugu, euskeraz abestuz, esaera zaharrak gogoratzuz... egun berezi hau ospatzeko.



NAHIKO PROGRAMA

Bi urte hauetan 2.mailak Nakiko Programan sartuta daudenez ekintza eta jarduera interesgarriak egiten dituzte. EMAKUNDEK gidatzen duen programa honen bitartez pertsonen arteko Berdintasuna, Errespetua eta Biolentziaezza lantzen da. Irakasleek jasotako formakuntza ondoren ikasleek gai asko lantzen dituzte oso era ludikoan.

SAN ANDRES AZOKA IKASTOLAN

San Andres eguna jai handia da Eibarren eta horren adierazgarria da gure Azoka inguruan sortzen den giroa. Argazkian 1. mailakoak azokaren hainbat txoko erakusten digute, ikus ezazuen zein polita den Iturburuko azoka.



kutxa

EUSKARA

TEKNOLOGIA
aurten, LIBURU DIGITALA

ELEANIZTASUNA

KALITATEA

INGURUMENA

**HERRIAREKIN
HARREMANANAK**

IKASTOLA
eskaintza

**ESKOLAZ
KANPOKO
EKINTZAK**

MULTIKULTURALITATEA

EUSKARA

**TEKNOLOGIA
BERRIAK**

ELEANIZTASUNA

KALITATEA

KIROLA

MOGEL ISASI
eskaintza

INGURUMENA

IKAS BIDAIA

FRANTZIARA BIDAIA

ESKOLA 2.0



Ignacio Zuloaga Institutua

Batzilergo eskaintza zabala

- Humanistika
- Zientifiko-teknikoa
- Artistikoa

Berezitasunak

- Alemaniako eta Ingalaterrako ikasketekin elkar trukea
- Frantses eta alemaniar ikastoketara
- Orientazio zerbizua eta psikologia
- Osean eta elkarbizitza proiektuak



Deredua

30 urtez

Jardifietea, 3 - Eibar -

www.ignaciозuloaga.net

012055a@hezkuntza.net

Tel. 943203849



San Agustin, 2-4, E lokala • 20600 EIBAR
Tel. 943 821 850 • Faxe: 943 208 599
premier@viajespremier.net

premierclass
viajesbidaiak

www.viajespremier.net

**ZALANTZARIK
GABE
KULTURA**

2012
KULTURA
www.kultura.net

elkar



LanHotz

INSTALAZIOA
eta

MANTENUA

- Elikadura eta ostalaritzarako merkatal instalazioak

- Aire egokitua

Tel:
943 78 90 46
Faxe:
943 78 90 68
Berraondokoa Pol.
Ind.7.zenb
20690 ELGETA
lanhotz@euskalnet.net

montte

LAES

INFORMATICA Y MATERIAL DE OFICINA
TIBURCIO ANITUA 4

TEL : 943254674-680387017

EMAIL: laes@telefonica.net

FAX : 943254674



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

zurekin elkarlanean

